



HEZKUNTZAKO SAILBURU JAUNA

Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoko osoko bilkurak, 2020ko uztailaren 13an eginiko bilkuran, orri-ertzean adierazitako kideak bertaratu direla, zure **kontsulta** aztertu du (133/2022 zenbakiarekin erregistratu da), hain zuzen ere, **José Uruñuela Udal Dantza Kontserbatorioa integratzeko, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari Gasteizko Udalarekin hitzarmen bat sinatzeko baimena ematen dion lege-aurreproiektuaren** gainekoa (Erref.: DNCG_LEY_3578/19_07).

Eztabaidatu eta gero, irizpen hau eman du aho batez. Urkiola Mendibil batzordekide andreak azaldu du Batzordearen iritzia.

BATZORDEBURUA:

Sabino Torre Díez jauna.

BATZORDEKIDEAK:

M^a Teresa Astigarraga Goenaga andrea.

Iñaki Beitia Ruiz de Arbulo jauna.

Iñaki Calonge Crespo jauna.

M.^a Jesús Urkiola Mendibil andrea.

Jaione Juaristi Sánchez andrea.

IDAZKARIA:

Jesús M^a Alonso Quilchano jauna.

127/2022 IRIZPENA

AURREKARIAK

1. Hezkuntzako sailburuaren 2022ko ekainaren 10eko Aginduaren bidez – Batzordean hilaren 13an sartu zen–, kontsultarako aurkeztu da Jose Uruñuela Udal Dantza Kontserbatorioa integratzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari Vitoria-Gasteizko Udalarekin hitzarmen bat sinatzeko baimena ematen dion lege-aurreproiektua.
2. Bidalitako espedientea, lege-aurreproiektuaren testuaz eta aipatutako eskaera-aginduz gain, honako dokumentu hauek osatzen dute:





- a) 2019ko urriaren 10eko Agindua, Hezkuntzako sailburuarena, lege-aurreproiektua egiteko prozedura abiarazten duena.
- b) Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendariak sinatutako 2019ko urriaren 14ko justifikazio-memoria.
- c) Genero-ikuspegitik alderdi esanguratsurik ez dagoela egiaztatzen duen txostena, 2019ko urriaren 14koa, Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendariak sinatua.
- d) Enpresan duen eraginari buruzko txostena, 2019ko urriaren 14koa, Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendariak sinatua.
- e) 2019ko urriaren 23ko Agindua, Hezkuntzako sailburuarena, lege-aurreproiektuari aldez aurreko onarpena ematen diona.
- f) Hezkuntza Saileko Araubide Juridikoaren eta Zerbitzuen Zuzendaritzaren txosten juridikoa, 2019ko azaroaren 6koa.
- g) 2019ko azaroaren 19ko txostena, Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzarena.
- h) 2019ko abenduaren 4ko memoriak, txosten juridikoan eta Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostenean egindako ekarpenak baloratzekoak, Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendariak sinatuak.
- i) Emakunderen txostena, 2019ko abenduaren 9koa, lege-aurreproiektua generoaren araberrako eraginari buruzko txostena egitetik salbuesten duena.
- j) Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorrek 2019ko abenduaren 12an egindako bileran emandako irizpena, ikastetxearen integrazioa positiboki baloratzen duena.
- k) 2020ko apirilaren 17ko memoria ekonomikoa, Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendariak sinatua.
- l) 2020ko apirilaren 23ko txostena, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren Lan Harremanen Zuzendaritzarena.
- m) Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren bigarren txostena, 2020ko apirilaren 27koa, transferitu beharreko kontserbatorioko



lanpostuen hizkuntza-eskakizunei buruzko gaien aldeko balorazioa egiten duena.

- n) Funtzio Publikoko Zuzendaritzaren 2020ko maiatzaren 5eko txostena, zeinaren bidez honako hau ondorioztatzen baita: José Uruñuela Udal Ikastetxea proposatutako hitzarmenaren bidez integratuz gero, langileek Gasteizko Udalarekin duten loturari eutsiko liokete, hau da, ez lirateke Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren plantillan sartuko.
- o) 2021eko ekainaren 8ko txostena, Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, sindikatu-ordezkariekin negoziatzeko betebeharrak, udal dantza-kontserbatorioko langileak integratzeko prozesutik eratorritakoak, baloratzen dituena.
- p) Ekonomia- eta araudi-kontrolari buruzko txostena, 2021eko irailaren 28koa, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak ematen duena.
- q) Funtzio Publikoko Zuzendaritzaren bigarren txostena, 2022ko maiatzaren 11koa, hasieran egindako txosteneko ondorioak zehazten dituena.
- r) Ekonomia- eta araudi-kontrolari buruzko bigarren txostena, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak egiten duena, 2022ko ekainaren 7koa.
- s) Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzaren txostena, 2022ko ekainaren 10ekoa, lege-aurreproiektuari buruzkoa.
- t) Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzaren txostena, 2019ko apirilaren 12koa, Jose Uruñuela udal dantza-kontserbatorioa Hezkuntza Sailaren ikastetxeen sarean integratzeko Vitoria-Gasteizko Udalarekin sinatuko den hitzarmenaren zirriborroari buruzkoa.
- u) Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzaren txostena, 2019ko uztailaren 31koa, Jose Uruñuela Udal Dantza Kontserbatorioa Hezkuntza Sailaren ikastetxeen sarean integratzeko Vitoria-Gasteizko Udalarekin sinatuko den hitzarmenaren zirriborroari buruzkoa.
- v) Vitoria-Gasteizko Udalaren Osoko Bilkuraren Erabakia, 2019ko martxoaren 22koa, zeinaren bidez, Jose Uruñuela Udal Dantza Kontserbatorioa Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailera eskualdatzeko prozesua hastea onartzen den.



- w) 2022ko maiatzaren 17ko txostena, ikastetxearen gaineko eskumenaren titulartasuna Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari eskualdatzeko akordioa gauzatu ondoren, José Uruñuela Udal Dantza Kontserbatorioari atxikitako higiezinaren eskualdaketa prestatzeko ondare-izapideei buruzkoa, Vitoria-Gasteizko Udaleko Ondare Kudeaketaren Atalak egindakoa.
 - x) Vitoria-Gasteizko José Uruñuela Udal Dantza Kontserbatorioa egonkortzeko negoziazio-bileren (20/2021 Legea) aktak.
 - y) Lege-aurreproiektuaren izapidetze-memoria, 2022ko ekainaren 7koa, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari igortzekoa, Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendariak sinatua.
3. Espedientean gehitu dira, halaber, espedientearen izapidetze-egoerari buruzko eta izapidetu bitartean gertatzen diren gorabeheren aurrean proposatzen diren hautabideen balorazioari buruzko txostenak, Araubide Bereziko Irakaskuntzen arduradunak/koordinatzaileak sinatuak, 2021eko martxoaren 5koa eta 25koa, eta Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendariak sinatutako hainbat memoria, egindako izapideen berri ematen dutenak.

AURREPROIEKTUAREN DESKRIPZIOA

4. Aztergai dugun lege-aurreproiektuaren helburua da Vitoria-Gasteizko Udalaren titulartasuneko José Uruñuela Dantza Kontserbatorio Profesionala Eusko Jaurlaritzaren mendeko ikastetxe publikoen sarean integratzea.
5. Artikulu bakarra du, eta, bertan, aurreproiektuaren helburua kontuan hartuta, baimena ematen zaio Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari Vitoria-Gasteizko Udalarekin hitzarmen bat sinatzeko, José Uruñuela Dantza Kontserbatorio Profesionala ikastetxe publikoen sarean integratzeko. Azken xedapenak, berriz, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA) argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera jarriko dela indarrean xedatzen du. Sinatu beharreko hitzarmenaren testua ez zaio lege-aurreproiektuari gehitu, eta ez da espedientean sartu.

BATZORDEAREN ESKU-HARTZEA

6. Irizpen hau Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 3.1. a) artikuluekin bat eman da; artikuluek Batzordearen kontsulta-funtzioaren eremutzat jotzen ditu lege-aurreproiektuak, edozein dela



ere haien arloa eta xedea, betiere biltzen dituen salbuespenen barruan sartuta ez badaude, eta honako hau ez da horietako bat.

ESKUMENEI BURUZKO GOGOETAK ETA ARAU-ESPARRUA

I ESTATUARI DAGOKIONEZ

7. Euskal Autonomia Erkidegoak (EAE) eskumena du irizpena emateko bidalitako arau-proiektuari heltzeko.
8. Horri dagokionez, adierazi behar da, Autonomia Estatutuaren 16. artikulua arabera, Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenekoa dela irakaskuntza osoa, hots, maila, modalitate eta espezialitate guztietan, baina alde batera utzi gabe Konstituzioaren (EK) 27. artikulua eta hura garatzen duten lege organikoak edota Espainiako Konstituzioaren 149.1.30 artikulua Estatuari esleitzen dizkion eskumenak.
9. Adierazi behar da duela gutxiko konstituzio-doktrinak –Konstituzio Auzitegiaren 51/2019 Epaia (KAE)– berretsi egin duela Espainiako Konstituzioaren 149.1.30 artikulua biltzen duen eskumen duala:

Horrenbestez, nahikoa da orain gogoratzea Konstituzio Auzitegiaren 184/2012 Epaian (3. OJ) eta ondorengo beste epai batzuetan esan bezala, hala nola Konstituzio Auzitegiaren abenduaren 19ko 213/2013 Epaian (2013 KAE, 213, 3. OJ), Konstituzio Auzitegiaren 111/2012 Epaian (2012 KAE, 111, 5. OJ), «EKren 149.1.30 artikulua bi eskumen desberdin esleitzen dizkiola Estatuari. Eskumen horiek, gure doktrinaren arabera, irismen desberdina dute. Lehenik eta behin, “Titulu akademikoak eta lanbide-tituluak eskuratu, eman eta homologatzeko baldintzak arautzeko” eskumen eskusiboa aitortzen dio; bigarrenik, “Konstituzioaren 27. artikulua garatzeko oinarrizko arauen gaineko eskumena esleitzen dio, botere publikoek arlo horretako betebeharrak betetzen dituztela bermatze aldera”».

Bigarren eskumenari dagokionez, erabaki haietan esan genuen Estatuari dagokiola «EKren 27. artikuluan aipatzen diren gaiak antolatzeko printzipio arautzaile, orokorrak eta berdinak definitzea» (Konstituzio Auzitegiaren 77/1985 Epaia, ekainaren 27koa (1985eko KAE, 77), 15. OJ, ondorengo askok errepikatu dutena). Ondorio hauetarako, guk emandako 111/2012 KAEren arabera, (maiatzaren 24koa, 5. OJ), «egokitzat jotzen da gogoraraztea hezkuntzarako



eskubideak askatasun-eskubidearen oinarritzko eduki bat dakarrela, eta hortik abiatuta ulertu behar da botere publikoei emandako prestazio-agindua, askatasun hori benetakoa eta eraginkorra izateko baldintzak sustatzeko dena (EKren 9.2 artikulua: Konstituzio Auzitegiaren 86/1985 Epaia, uztailearen 10ekoa, (1985eko KAE, 86), 3. OJ eta Konstituzio Auzitegiaren 337/1994 Epaia, abenduaren 23koa (1994ko KAE, 337), 9. OJ), eta eskubide hori hezkuntza-sistema baten esparruan erabili behar da. Sistema hori definitzen duten elementuak botere publikoek zehazten dituzte; beraz, hezkuntza jarduera arautua da (Konstituzio Auzitegiaren 337/1994 Epaia, abenduaren 23koa, 9. OJ, eta Konstituzio Auzitegiaren 134/1997 Epaia, uztailearen 17koa (1997ko KAE, 134), 4. OJ. Edonola ere, hezkuntza-sistema horren taxueran nahitaez parte hartu behar dute estatu- eta autonomia-gobernuek, dituzten eskumenei jarraikiz.

10. Eta epai horretan bertan argi eta garbi adierazi da EKren 149.1.30 artikuluan aitortutako estatuaren eskumenaren irismena, eskumen horren barnean «azpigai» hauek ere barne hartzen baitira:

irakaskuntzaren programazioa, haren definizioa eta hezkuntza-sistemaren ebaluazio orokorra; irakaskuntzaren sektorearen eta irakaskuntza- eta hezkuntza-jardueraren antolamendua; dagozkion ikasketa-planen ezarpena, curriculumaren antolamendua barne; ikasketak, bekak eta estatuko laguntzak sustatzeko araubidea; hezkuntzarako sarbidea eta ikastetxeetan ikasleak onartzeko eta eskolatzeko irizpideen ezarpena eta erregulazioa; irakaskuntza-sistemako irakaskuntzak eta irakaskuntza horiek ematen dituzten ikastetxeak funts publikoekin laguntzeko araubidea; ikastetxeen eta heziketa-zentroen betekizunak eta baldintzak; funts publikoekin laguntzen zaien ikastetxe publiko eta pribatuen antolamendua; hezkuntza-komunitateak parte hartzea funts publikoekin laguntzen zaien ikastetxe publikoen eta pribatuen kontrolean eta kudeaketan; hezkuntza-administrazioaren funtzionario irakasle izaera eskuratzea eta galtzea; beren oinarritzko eskubideak eta betebeharrak gauzatzea; eta hezkuntza-administrazioaren zerbitzupeko langileen politika.

11. Estatuaren eskumen horri esker, Estatuak Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa (HLO) eman zuen, eta lege horren hogeita hamargarren xedapen gehigarriak justifikatzen du izapidetzen ari den lege-aurreproiektua onartzea.



12. Xedapen horrek ikastetxeak titulartasun publiko autonomikoko ikastetxeen sarean integratzea arautzen du, honela:

Autonomia-erkidegoek, bertako Parlamentuen Legearen bidez ezartzen den moduari eta prozedurari jarraikiz, beren ikastetxe publikoen sarean sartu ahal izango dituzte, toki-administrazioen titulartasuna izanik, egoera sozioekonomiko txarretan bizi diren ikasleak jasota dituzten ikastetxeak edo eskolatzeko-premiei erantzuteko zeregina betetzen duten ikastetxeak, betiere, toki-administrazioek sare horretan sartzeko borondatea adierazten badute eta Legean ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

13. Lege beraren 8. artikuluan printzipio bat ezartzen da: hezkuntza-administrazioek eta toki-korporazioek lankidetzan jarduteko, «bakoitza bere eskumenen eremuan, hezkuntzarako baliabideen eraginkortasun handiagoa lortzeko eta Lege honetan ezarritako helburuak lortzen laguntzeko».
14. VI. kapituluaren arte-irakaskuntzak arautzen dira; besteak beste, dantzako oinarrizko irakaskuntzak eta irakaskuntza artistiko profesionalak; eta hamabosgarren xedapen gehigarrian, berriz, udalerriek, lankidetzako hitzarmenak ezarritik, irakaskuntza artistikoen arloan hezkuntza-administrazioarekin duten lankidetzako espezifikoa aipatzen da, besteak beste.
15. Bestalde, Euskal Eskola Publikoari buruzko otsailaren 19ko 1/1993 Legea (EEPL) kontuan hartu behar dugu. Lege horren bederatzigarren xedapen gehigarriak hezkuntza-administrazioaren eta toki-korporazioen arteko lankidetzako arautzen baitu. Xedapen horretan, halaber, arautzen da udal-erakundeen jabetzapeko herri-ikastetxeak erakundeon eta hezkuntza-administrazioaren arteko hitzarmenaren bidez sortuko direla, «sortze hori Euskal Herriko irakaskuntzaren programazio orokorrarekin ados egon dadin». Hau ere ezartzen du: «Hezkuntza Administrazioak lankidetzako hitzarmenak sinatu ahal izango ditu toki-korporazioekin, araubide bereziko irakaskuntzen alorrean».
16. Hezkuntzaren eremuko arau-esparru autonomiko espezifikoaren barruan, otsailaren 19ko 2/1993 Legea –Euskal Autonomia Elkartearen unibertsitateko kanpoko irakaskuntzarako irakasleen kidegoei buruzkoa– ere aipatu behar dugu.
17. Lege-aurreproiektuaren xede den ikastetxea integratzeak ekarriko dituen ondorioak ikusita (espedientean jasota daude), beharrezkoa da, halaber, arau-esparrua osatzea honako hauek aipatuta: langileen Estatutua, urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako testu batekina, Euskadiko



Ondareari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 6ko 2/2007 Legegintzako Dekretua, Euskadiko toki-erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea (ETEL), eta ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretua, toki-erakundeen ondasunen erregelamendua onartzen duena.

II EUROPAR BATASUNAREN BARRUAN

18. Ekimenaren oinarri diren eskumen-tituluen ikuspegitik, esan behar da hezkuntzaren arloan gaia antolatzea eta gauzatzea erakunde erkideei dagokiela, Autonomia Erkidego Osorako erakundeen eta bertako lurralde historikoetako foru-organoen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legeak (LHL) 6.1 artikulua hondar-klausularen bidez ezartzen duen barne-banaketa orokorraren arabera.
19. Udalerriei dagokienez, aipatu ditugun arau sektorialetan jasotako berariazko erregulazioez gain, kontuan hartu behar dira Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen (TAOL) eta Euskadiko toki-erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen (ETEL) aginduak ere.
20. Bi arau horien arabera, udalek hezkuntzaren eremuan dituzten eskumenak hauek dira: derrigorrezko eskolatzea betetzen dela zaintzea, hezkuntza-administrazioekin lankidetzan aritzea ikastetxe berriak eraikitzeko beharrezkoak diren orubeak lortzeko, eta haur-hezkuntzako, lehen hezkuntzako edo hezkuntza bereziko ikastetxe publikoetara bideratuta dauden tokiko titulartasuneko eraikinak kontserbatzea, mantentzea eta zaintzea.
21. ETELen hirugarren xedapen iragankorrak, hala ere, aukera ematen du udalek, berezko eskumenen eremuan sartuta ez egon arren, legea indarrean jartzean egiten zituzten jarduerak egiten eta ematen zituzten zerbitzuak ematen jarraitzeko.

PRESTATZEKO PROZEDURA

22. 8/2003 Legeak, abenduaren 22koak, xedapen orokorrak egiteko prozedurari buruzkoak (aurrerantzean, XOEPL), 3.1 artikuluan bere ezarpen-eremuaren barruan sartu ditu lege-forma duten xedapen orokorrak.
23. Aholku-batzordearen doktrina jarraituaren arabera, ohartarazi beharra dago, araubide-zertasan horrek ez duela baliogabetzen lege-aurreproiektuak egiteko prozeduraren azterketan lehenetsi beharreko ikusmoldea, bestelakoa izan behar duena, halakoak izapidetzearen ondorioz sortutako produktuek izaera berezia baitute.



24. XOEPLren asmoa da gobernuak beste arauen egitasmoetan aplikatzen den metodologia bera erabiltzea lege-egitasmoak egitean ere. Izan ere, xedapenaren zioen azalpenak dioenez, horrela «...laguntza handia ematen da lege-boterearen jabearen lana errazten, eztabaidatzeko eta erabakitzeko hobeto oinarritutako eta artikulatutako proiektuak aurkezten baitzaizkio, nahi diren helburuak erdiesteko teknika juridiko fin eta egokiagoz».
25. Hala ere, Batzorde honen doktrina errepikatua da prozedurazko betekizun oro baldintza material baten ondorio dela. Hori dela-eta, hura aztertzen delarik, formalki ez ezik, benetan ere betetzen dela egiaztatu behar da. Egintzak edo arauak prestatzeko modua epaitzeko irizpidea beti hori bada, lege-aurreproiektuez ari garelarik, irizpide hori nabarmendu egiten da; izan ere, legeak egiteko ahalaren eta erregelamenduak egiteko ahalaren arteko desberdintasun muturrekoak azterketa hori nabarmenki baldintzatzen du –«legegileak ez du Konstituzioa gauzatzen, egiten duena hark ematen duen esparruaren barnean askatasunez eskubidea sortzea da; izan ere, arau arloko eskumena gauzatzera koan “Konstituzioarekin eta legeekin bat etorri jarduten da” (Espainiako Konstituzioaren 97. artikulua)» (besteak beste, 209/1987 KAE eta 55/2018 KAE)–.
26. Hain zuzen ere, legebiltzarrean hedatzen baita bere zabalean legegintza-prozedura, eta Konstituzioak (EK), Euskal Herriaren Autonomia Estatutuak edo, batzuetan, lege organikoek baldintzak ezartzen dituzten kasu berezietan izan ezik, lege-proiektuek bete beharreko baldintza bakarra da beharrezkoak diren aurrekariekin batera bidaltzea Legebiltzarrera, Parlamentuak bere iritzia eman eta erabakia hartu ahal izateko; gutxienez ere, memoria orokorra, generoaren araberrako eraginaren eta zuzentze-neurrien aurretiazko azterketa (hala badagokio), finantzaketari buruzko eranskina eta kontrol ekonomikoko txostena –aurrekontuari karga edo zama dakarkioten proiektuetan–, gure irizpena, eta legeriaren arabera nahitaezko diren beste txostenak (Jaurlaritzaren Legearen 57. artikulua, eta Eusko Legebiltzarreko Araudiaren 133.2 artikulua).
27. Beraz, lege-aurreproiektuei dagokienez, prozedurak, administrazio-fasean dagoen bitartean, ezin duenez arriskuan jarri amaierako produktuaren baliozkotasuna, lege-aurreproiektuak prestatzeko prozesua aztertzearen helburua ez da baliozkotasunean eragina izan dezaketen akatsak saihestea, baizik eta helburu nagusi batekin aztertzen da: hain zuzen, araua proposatutako edukiekin idaztea eragin duen oinarri objektiboa ezagutzea. Ondorioz, legearen arrazionaltasunaren inguruan ikertzen da –ea hausnarketaren ondoriozko erabakia den–, baita haren arrazoizkotasunaren inguruan ere –gure ordenamendua taxutzen duten arau axiologikoei jarraitzen ote dien–.



28. Hori da, beraz, Batzordearen azterketaren azken zentzua, gobernuaren barnean aurreproiektuak eratzeko prozesua behatzen duena, ekimenari buruzko epai juridikoa osatzeko ezinbestekoak diren datuak barneratzen dituen egiaztatzeko (helburuen egokitasunari dagokiona eta proiektatutako eduki arauemailea barneratzen dituen).
29. Horretarako, betiere ikuspegi material batekin, honako hauek aztertzen dira: (I) organo sustatzailean prestatzeko fasea –kontuan hartutako premisa faktiko eta juridikoak eta egindako hausnarketa, hasierako arau-testuari zentzua ematen diotenak–; (II) entzuteko eta parte hartzeko faseak –testua ireki ote den hartzaileek, eraginpeko sektoreek eta erregulazioari dagozkion eskumen-eremuetako administrazioek parte hartzeko; zein izan den haien balioespena, zein oharpen eta proposamen egin diren eta zeintzuk izan diren onartzeko edo baztertzeko arrazoiak–; eta (III) arauen arabera arau-testua ikuspegi kualifikatuetatik aztertu behar duten organoek esku hartzeko fasea.
30. Prozedura aztertuz, halaber, egiazta daiteke ea, prestatu bitartean, aintzat hartu diren, kasuan-kasuan, arauaren bideragarritasuna baldintzatzen duten faktoreak (hau da, ea aztertu den bestelako hautabiderik eta horien ondoriorik, eta hautabideok benetan aplikatzeko egon litezkeen aukerak, baita, orobat, horien bidez lortu nahi diren ondorioak erdiesteko gaitasuna ere). Alde horretatik, azterketak arreta berezia jartzen du eragin ekonomikoan: araudiak administrazioei eskatuko dien ahalegin publikoa neurtu den, baita ahalegin pribatua ere neurtu den, erregulazioaren izaerak horrelakorik eskatzen badu. XOEPLren 10.3 artikuluan erabilitako hitzetan, *in fine*, hauxe ebaluatuko da: «bere aplikazioak beste administrazio batzuentzat, partikularrentzat eta, oro har, ekonomiarentzat zer kostu dakarren».
31. Aipatutako parametroekin, jarraian, emaitza modura lege-aurreproiektuaren testua, aztergai dena, eman duen prozedura aztertzen da.
32. Arau-testua prestatzeko fasean, XOEPLk ezarritako izapideei jarraitu zaie – hasteko agindua eta alde zurretik onartzeko agindua–, eta aurreproiektuarekin batera doazen memorien edukiak aukera ematen du egiaztatzeko ea organo sustatzaileak beharrezkoak diren premisa faktikoak eta juridikoak izan dituen hura prestatzean, eta gogoeta egokia egin duen hautabideei buruz.
33. Espedientean jasota dago udal dantza-kontserbatorioa hezkuntza-administrazio autonomikoan integratzeko ekimena denbora luzez baloratu dutela esku hartu duten administrazioek. Hain zuzen ere, 2015. urtetik, hots, Erakunde Autonomoaren Artezkaritza Kontseiluak irakaskuntza horiek administrazio



autonomikora eskualdatzea komeni zela planteatu zenetik, eta 2016. urtetik, hots, Gobernu Kontseiluak helburu berarekin asmo-protokolo bat sinatzeko baimena eman zuenetik, Eusko Legebiltzarrak 2018ko azaroaren 15ean onartu zuen 37/2018 Moziora arte. Mozio horren bidez, José Uruñuela Udal Dantza Kontserbatorioa Hezkuntza Sailaren mendeko irakaskuntza-sare publikoan integratzea eskatzen da.

34. Lege-aurreproiektuaren edukiak integratzeko hitzarmena sinatzeko baimena eman besterik ez du egiten (hitzarmena ez da espedientean agertzen), baina espedienteari gehitutako memoria ekonomikoak hura integratzeak izango dituen ondorioen deskribapen xehatua egiten du, bai ikuspegi akademikotik soilik – Euskal Autonomia Erkidegoko dantza-irakaskuntzen egoera deskribatzen du eta etorkizunean egokitzeko proposamen batzuk egiten ditu–, bai hura integratzeak ikastetxeari atxikitako langileen gaietan izango duen eraginari buruz –hizkuntza-plangintzari buruzko balioespen espezifikoko bat ere egin du– eta garatu behar diren ondare-eragiketen ikuspegitik –integratu beharreko kontserbatorioa kokatuta dagoen higiezinaren jabari-titulartasuna eskualdatzea lortzeko–.
35. Memoria horretan, gainera, azken urteetan –2015etik 2019ra– udalak ikastetxearen kudeaketan bere gain hartutako diru-sarreraren eta gastuen balorazio zehatza egiten da, eta autonomia-erkidegoko administrazioak integrazioarekin bere gain hartu beharko lituzkeen gastuen aurreikuspena egiten da, baita ikastetxeko ikasleek izango lituzketen matrikulazio-kostuen ondoriozko diru-sarreraren aurreikuspena ere. Memoria amaitzeko, kontserbatorioa benetan integratzeko sailak egin beharko dituen jarduketak guztiak identifikatzen dira.
36. Hartzaileen eta eraginpeko sektoreen partaidetza Euskadiko Eskola Kontseiluaren esku-hartzearen bidez bideratu da. Urriaren 28ko 13/1988 Legearen arabera, unibertsitatekoa ez den irakaskuntzaren programazio orokorrean inplikaturik dauden sektore sozialen parte-hartzerako organo gorena da Eskola Kontseilua, eta Eusko Jaurlaritzak proposatu edo eman behar dituen lege-proiektuei, xedapen orokorrei eta erregelamenduei dagokienez kontsulta eta aholkua emateko funtzioak esleitzen dizkio.
37. Era berean, erregulazioari dagozkion eskumen-esparruak dituzten administrazioen parte-hartzea bermatu da; izan ere, Vitoria-Gasteizko Udalak eragin zuzena du, eta espedientean jasota daude udal dantza-kontserbatorioa integratzearen alde udalak duen jarrera ez ezik, denbora horretan sortutako arazoak konpontzeko izandako harremanak ere.



38. Iritzi espezializatua emateko prozeduran zehar arauetan aipatzen diren organo sektorialek esku hartzeko fasea ere behar bezala egin da. Izan ere, ekimena formalki izapidetu da, nahitaezko txostenak bildu dira, eta, horretaz gain, arazo gehien sortu dituzten gaiei txosten bat baino gehiago egin zaie.
39. Esate baterako, Funtzio Publikoko Zuzendaritzak bi txosten egin ditu langileen integrazioari buruzko alderdiei buruz. Bigarren txostenean lehenengoan emandako iritzia zehaztu du eta honako hau ondorioztatu du:
2. Irakaskuntza arautua, EAEko Administrazioaren eskumena dena, ematen duten kontserbatorioko irakasleak baino ez dira eskualdatuko.
 3. Enpresen ondorengotza aplikatuko da, eta, beraz, EAEko Administrazioaren subrogazioa Vitoria-Gasteizko Udalak kontserbatorioko lan-kontratudun irakasleen lan-kontratuetan zuen egoera juridikoan.
 4. Funtzionarioek Vitoria-Gasteizko Udaleko langile izaten jarraituko dute, baina langile horien kudeaketa Hezkuntza Sailari ematea erabaki ahal izango da.
 5. Vitoria-Gasteizko Udalak jarraituko du behin-behineko langileak izendatzen, baina langile horiek ez dute inolako loturarik izango Hezkuntza Sailarekin.
40. Kontrol Ekonomikoko Bulegoak ere bi aldiz esku hartu du; izan ere, lehenengo kontrako txostenaren ondoren eta espedienteko informazioa osatu ostean, honako hau ondorioztatu du: «Sail sustatzaileak ekimenak etorkizunean izango duen eragin ekonomikoari buruzko oinarrizko hausnarketa egin duela egiaztatu ondoren, honako hau adierazi nahi dugu: aurreproiektuaren edukiak ez dakar eragin gehigarririk EAEko Ogasun Nagusia osatzen duten eremuetako bakar batean ere, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legean (EAEONAL, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua, haren testu bategina onartzekoa) zehaztutako moduan, eta ez du jasotzen bestelako aipamenik beharko lukeen antolamendu-elementurik».
41. Beraz, prozedura osoa aztertu ondoren, adierazi behar da araua egiteko prozeduraren balorazioa, oro har, positiboa dela, bai XOEPLren jarraibideetara formalki egokitu delako, bai aruari buruzko, bai araua ematearekin lortu nahi diren helburuak lortzeko moduari buruzko eztabaida ahalbidetu duelako.



LEGE-AURREPROIEKTUAREN AZTERKETA

I ALDEZ AURREKO GOGOETA

42. Lege-aurreproiektuaren testua aztertu aurretik, lege bereziei buruzko konstituzio-doktrina jaso behar da.
43. Konstituzio Auzitegiak 159/2021 Epaian lege berezi autoaplikagarriei buruzko doktrina konstituzionala jasotzen da, eta epai horretan honako hau gogorarazi da berriki: «Argi dago gizartearen heterogeneotasunaren eta aniztasunaren onarpenak eragina izan duela legearen orokortasunaren dogman, legearen taxueraren euskarri tradizionalan; beraz, garai batean “legean” oso finkatuta zeuden egonkortasunari eta iraunkortasunari buruzko oharak, orain Konstituzioan daude batez ere. Legearen egitura formalaren eta tradizionalaren aldaketa horrek, Konstituzioaren testuan bertan ere antzeman daitekeenak (EKren 57.5, 93., 128.2 eta 141.1 artikulua, besteak beste), konstituzio-printzipioak urratu ordez, legearen funtzio soziala berdintasun erreala eta eraginkorra lortzeko helburuan planifikatzen du askotan (EKren 1.1 eta 9.3 artikulua). Hori dela-eta, “Legearen orokortasunaren dogma ez da oztopo gaindiezina legegileari kasu bakarretarako edo subjektu jakin batzuetarako manu espezifikoak ematea galarazteko” (Konstituzio Auzitegiaren abenduaren 19ko 166/1986 Epaia, 10. OJ)».
44. Dena den, Konstituzio Auzitegiak eman dituen zenbait erabakitan ere (abenduaren 19ko 166/1986 KAE; martxoaren 3ko 48/2005 KAE; ekainaren 4ko 129/2013 KAE; abenduaren 5eko 203/2013 KAE; martxoaren 5eko 50/2015 KAE; ekainaren 23ko 122/2016 KAE; urriaren 6ko 170/2016 KAE; abenduaren 21eko 152/2017 KAE; eta apirilaren 26ko 42/2018 KAE) taxutu du lege bereziei buruzko konstituzio-doktrina. Lege horien artean honako hauek bereizi ditu: (I) alde batetik, lege autoaplikagarriak, hau da, «araua kasu zehatzari aplikatzeko jarduera bat (tipikoki betearazlea dena) jasotzen duten legeak» (203/2013 KAE), edo «gerora aplikatzekoa den administrazio-jarduerarik behar ez dutenak, berez baitaukate jarduera hori» (129/2013 KAE); (II), eta, bestetik, autoaplikagarriak ez diren legeak; horien barnean honako hauek sartzen dira: «hartzaile bakarrari edo hartzaileen arabera egitura bereziari dagozkionak (203/2013 KAE), egitate jakin baten, hau da, egoera berezi edo ezohiko baten arabera emandakoak» (129/2013 KAE) edo, zehatzago, «egitate zehatz eta berezi baten arabera emandakoak, Lege berezian isolatuta dagoen eta beste inorekin harremanetan jarri ezin den egitate horren aurrean legegileak neurria hartzean eta hartutako neurria betearaztean edukia eta eraginkortasuna agortzen dutenak» (166/1986 KAE).
45. Horrelako legeei aplika dakiekeen konstituzionaltasun-kanona Konstituzio Auzitegiaren 129/2013 Epaian (4. OJ) landu dena eta Konstituzio Auzitegiaren 231/2015 Epaian sistematizatu dena da (3. OJ). Epai horietan, Konstituzio Auzitegiak adierazi duenez, «lege berezietan ez da legegintza-ahalaren erabilera normala



aplikatzen» eta, ondorioz, «Konstituzioan bertan jasotako zenbait mugaren mende daude», besteak beste, berdintasun-printzipioaren mende. Horrela, bada, «berdintasun-printzipioak eskatzen du lege bereziak salbuespenezko egoera berezi bati erantzutea», eta, beraz, lege berezia «salbuespenezko kasu batzuetara mugatuko da; hain zuzen ere, aparteko garrantzia eta konplexutasuna direla-eta, administrazioak (legezkotasun-printzipioari jarraikiz jardutera mugatuta) dituen tresna arruntek eta arau-tresna arruntek konpondu ezin dituzten salbuespenezko kasuetara».

46. Gainera, lege autoaplikagarriak, desjabetzaileak izan ala ez, «EKren 24.1 artikuluan ezarritako babes judizialaren bermearekin alderatu behar dira». Ildo horretan, Konstituzio Auzitegiaren 129/2013 Epaiaren arabera, «dagoen legezkotasuna kasu zehatzari aplikatzea legegileari erreserbatzeak, Administrazioak egin ohi duen jarduera alde batera utzita, eragotzi egiten du administrazioarekiko auzien jurisdikzioko Auzitegiei legokiekeenaren intentsitate bereko kontrola egitea, baldin eta betearazpen-jarduera Administrazioak egin izan balu. Izan ere, Konstituzio Auzitegiari ez dagokio, inola ere, kontrol faktikoa eta legezkotasun arruntaren kontrola egitea –aplikazio-egintzen elementu arautuen kontrola–. Kontrol horrek, nolahi ere, araua kasu zehatzari aplikatzea eskatzen du, araua nork gauzatzen duen alde batera utzita».
47. Azkenik, Konstituzio Auzitegiaren 129/2013 Epaiak (4. OJ) dioenez, «Auzitegi honek horrelako legeak kontrolatzeko duen eginkizuna betetzean erabili behar duen konstituzionaltasun-kanona arrazoizkotasunarena, proportzionaltasunarena eta egokitzapenarena da».

II LEGE-AURREPROIEKTUAREN BALORAZIOA

48. Aurreko gogoetak kontuan hartuta, aztergai dugun lege-aurreproiektua aztertu behar dugu orain. Artikulu bakarra du, eta bertan, hau ezartzen da: «baimena ematen zaio Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari Vitoria-Gasteizko Udalarekin hitzarmen bat sinatzeko, José Uruñuela Dantza Kontserbatorio Profesionala ikastetxe publikoen sarean integratzeko».
49. Justifikazio-memoriak adierazten duenez, Eusko Legebiltzarrak 2018ko azaroaren 15ean onartutako 37/2018 mozioa da ekimenaren sorburu. Mozio horrek Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari eskatzen dio 2018. urtea amaitu baino lehen formalizatu dezala José Uruñuela Udal Dantza Kontserbatorioa irakaskuntza-sare publikoan integratzeari buruzko hitzarmena Vitoria-Gasteizko Udalarekin, eta eskatzen du Hezkuntza Sailaren mendeko irakaskuntza-sarean behin betiko integratzeko prozesua lehenbailehen gauzatu dadila, 2019. urtean, trantsizio normalizatua eta ikastetxearen egonkortasuna sustatuz.



50. Memoria ekonomikoak, bestalde, José Uruñuela Udal Dantza Kontserbatorioak egiten duen lan berezia defendatzen du, oinarrizko mailan eta maila profesionalean dantzako arte-irakaskuntza arautuak ematen dituen ikastetxe bakarra baita autonomia-erkidegoan. Irakaskuntza horiek ematen dituen ikastetxe pribaturik ez dagoela ere esaten da.
51. Memoria horretan jasotzen denez, «Musikako arte-irakaskuntzetan, ikasleak Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren titulartasuneko ikastetxe publikoetan, udalaren mendeko ikastetxeetan eta ikastetxe pribatuetan ematen diren oinarrizko irakaskuntzetatik eta irakaskuntza profesioaletatik Musikenen ematen diren goi-mailako irakaskuntzetara igaro daitezke. Dantzako arte-irakaskuntzetan, berriz, goi-maila dago Dantzerti Euskadiko Arte Dramatiko eta Dantza Goi Mailako Eskola sortu berrian, baina oinarrizko irakaskuntzak eta irakaskuntza profesionalak udal-titulartasun publikoko ikastetxe batean baino ez dira ematen, José Uruñuela ikastetxean, hain zuzen ere».
52. Horiek lirateke, beraz, laburbilduta, José Uruñuela Dantza Kontserbatorio Profesionala Hezkuntza Sailaren mendeko ikastetxe publikoen sarean sartzea justifikatuko luketen arrazoiak.
53. Ikastetxea integratzeko helburu hori lortzeko, legea erabiltzeari dagokionez, aurreproiektuaren zioen azalpenak berak justifikatzen du ekimenaren arau-maila, HLOren hogeita hamargarren xedapen gehigarrian jasotako erregulazioan oinarrituta. Xedapen horren arabera: «Autonomia-erkidegoek, bertako Parlamentuen Lege bidez ezartzen den moduari eta prozedurari jarraiki, beren ikastetxe publikoen sarean sartu ahal izango dituzte, toki-administrazioen titulartasuna izanik, egoera sozioekonomiko txarretan bizi diren ikasleak jasota dituzten ikastetxeak edo eskolatze-premiei erantzuteko zeregina betetzen duten ikastetxeak, betiere, toki-administrazioek sare horretan sartzeko borondatea adierazten badute eta Legean ezarritako baldintzak betetzen badituzte».
54. Espedienteari erantsitako txosten juridikoak honako hau dio:

Oinarrizko araudi horren lege-garapena ez da oraindik onartu Euskal Autonomia Erkidegoan; horrenbestez, EAEko ikastetxe publikoen sare orokorrean udal-titulartasuneko ikastetxeak integratzeko modua eta prozedura arautzen dituen legerik ez da argitaratu.

Hori dela-eta, aipatu diren kasu gutxietan, eskatutako lege-maila errespetatu behar izan da (Legea), baina kasu partikular bakoitzari aplikatuz (...)



Hala gertatu zen, gainera, Laudio Udal BHIren kasuan, haren integrazioak Bizialdi Osoko Ikaskuntzari buruzko urriaren 10eko 1/2013 Legearen lehen xedapen gehigarrian izan baitzuen babesia.

Eta horrela gauzatu nahi da aztergai dugun proiektuaren bidez, Vitoria-Gasteizko José Uruñuela udal-kontserbatorioari dagokionez. Horrek, beraz, Lege «ad hoc» bat ematea eskatzen du.

Egia esan, aurkeztutako proiektuak honako hau besterik ez du egiten: ezartzen du integrazteko «modua eta prozedura» dela hezkuntza-administrazioari baimena ematea Vitoria-Gasteizko Udalarekin hitzarmen bat sinatzeko; beraz, itundutako tresna horrek mugatuko ditu etorkizunean integrazioa gauzatzeko jarriko diren baldintza zehatzak, erabiliko den prozedura eta abar, Laudio BHIk egin zen bezala.

55. Txosten juridikoko gogoeta horiek kontuan hartuta, Batzorde honek uste du lehenik eta behin argitu behar dela Bizialdi Osoko Ikaskuntzari buruzko Legearen aurreproiektuaren idazketan (guk aztertu genuen eta horren ondorioz 266/2011 Irizpena egin zen) ez zela Laudio Udal BHI integrazteari buruzko xedapen gehigarriak jasotzen, eta, beraz, adierazpen hori ez genduela aztertu.
56. Aztergai dugun aurreproiektuari dagokionez, ikusten dugu proposamena egin duen sailaren txosten juridikoak aitortzen duela lege bereziaren bidea erabili dela José Uruñuela Dantza Kontserbatorio Profesionala Hezkuntza Sailaren mendeko ikastetxe publikoen sarean integrazteko nahiari erantzuteko.
57. Eta hori ukaezina da; izan ere, aztergai dugun lege-aurreproiektuaren edukia kasu zehatz baten ondorio da –ikastetxe bakar baten integrazioa–, eta ez du legegintza-ahala baliatzearen berezko orokortasunik. Horrenbestez, arauaren edukia guztiz bat dator aurretik garatutako lege berezien kontzeptua zedarritzearekin.
58. Beraz, lege-aurreproiektua lehen aipatutako Konstituzio Auzitegiaren epaiek lege bereziak erabiltzeko ezartzen dituzten mugak kontuan hartuta balioetsi behar da, berdintasun-printzipiotik hasita.
59. Horretarako, hemen gogorarazten dugu, Konstituzio Auzitegiaren 122/2016 Epaia lege bereziei buruzko konstituzio-doktrina aipatzean egiten duen bezala, lege berezien konstituzionaltasun-kanonak alderdi horretan eskatzen duela baloratzea arauak «ez duela berdintasun arbitrarioz edo justifikazioz gabekorik



ezartzen», eta, gainera, arbitrariotasuna lege bat arbitrariotzat kalifikatzeak eskatzen duen zuhurtzia guztiarekin interpretatzen dela, Espainiako Konstituzioaren 9.3 artikulua ondo onartarako.

60. Ildo horretan, espedienteak argi uzten du integratuko den ikastetxearen berezitasuna. Vitoria-Gasteizko José Uruñuela Udal Dantza Kontserbatorioa oinarrizko mailan eta maila profesionalean dantzako arte-irakaskuntza arautuak ematen dituen ikastetxe bakarra da Euskal Autonomia Erkidegoan –titulartasun publikoko zein pribatuko ikastetxeak hartzen dira kontuan–.
61. Beraz, ezin da esan aurreproiektuak tratatu desberdina edo arbitrarioa dakarrenik, eta kasu honetan Konstituzio Auzitegiaren doktrina errespetatuko litzateke, legegilearen justifikaziorik gabeko hautaketatik eratorritako salbuespenezko kasu batean proiektatu ordez kasu berezi objektibo batean proiektatzen diren lege bereziek berdintasun-printzipioa ez urratzeari buruzko doktrina, hain zuzen ere (guztien erakusgarri, Konstituzio Auzitegiaren 166/1986 eta 203/2013 Epaiak).
62. Bestalde, babes judizial eraginkorraren bermea (EKren 24.1 artikulua) betetzen den aztertu aurretik, lege-aurreproiektua autoaplikagarria den ala ez zehaztu behar da, eta horretarako erabakigarria den ikuspegi materialetik egin behar da. Ildo horretan, araua ezin da autoaplikagarritzat hartu; izan ere, lehen aipatutako 129/2013 KAEk lege berezi autoaplikagarriez egiten duen mugaketak ez bezala, lege honek aplikatzekoa den administrazio-jarduera bat eskatuko du gerora.
63. Taxuera horren arabera, kasu honetan lege berezia erabiltzeak ez luke ekarriko EKren 24.1 artikuluan ezarritako babes judizialaren bermea urratzea. Arazo hori dute, hain zuzen ere, Konstituzio Auzitegiaren azken jurisprudentziaren arabera, lege bereziek, eta, jurisprudentzia horren arabera, ez du azterketa abstrakturik onartzen, baizik eta kasuari lotuta ebatzi behar da, epaitutako legearen eduki zehatzari lotuta, eduki horrek aipatutako oinarrizko eskubidean zein neurritan eragiten duen ondorioztatzeko.
64. Laudio Udal BHI integratzeko jarraitutako prozesuari eta espedienteari erantsitako memorietan eta txostenetan egindako gogoetei jarraituz, esan behar dugu legea onartu ondoren, esku hartzen duten administrazioen arteko hitzarmen bat sinatzeaz gain, ikastetxea erabat integratzeko hainbat administrazio-jarduera egin beharko direla. Hauek izango dira jardunak: ikastetxea integratzeko dekretua onartzea, egin beharreko ondare-eragiketak onartu eta formalizatzea, eta ikastetxeko langileen integrazioari buruzko gai guztiak izapidetzea. Jarduketa horiek guztiek aukera emango dute beren eskubide



edo interes legitimoak ukituta izan ditzaketen pertsonak bidezkozat jotzen dituzten errekurtsoak aurkezteko haien aurrean.

65. Ez da ahaztu behar, halaber, Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentiak lege berezien konstituzio-kontrakotasuna deklaratu duen kasuetan, babes judizial eraginkorraren printzipioa urratzeagatik, lege-mailako arauen erabilera arrazoitua izan zela, bai materialki erregelamendu-mailakoa izan behar zuen arauaren ohiko kontrol judiziala saihesteko (203/2013 KAE), bai aldeztatik erregelamendu-arauaren deuseztat jo zuen epaitza judizial bat bete ez dadin edo epaitza zehaztu dadin (50/2015 KAE).
66. Hala adierazten du Konstituzio Auzitegiak 42/2018 Epaian, honako hau dioenean: «Arauaren edukia hori izanik, argi dago, Auzitegi honek aztertutako beste kasu batzuetan ez bezala, (Konstituzio Auzitegiaren 231/2015 Epaia, 6. OJ edo 233/2015 Epaia, azaroaren 5ekoa, 15. OJ) hemen ez dagoela konstituzio-garrantzia duen interesik lege-mailako arau bat onartzea nahitaez eskatzen duenik. Edo, bestela esanda, hartutako neurriaren oinarri diren interes orokorretik eratorritako eskakizun argiak daudela, argi baitago turismo-eredua ezartzeko aukera ematea eta horretan laguntzea helburu orokor bat dela, eta Kanarietako Administrazioek, 6/2002 Legeak diseinatutako esparrutik abiatuta, beren gain har dezaketela helburu hori, bakoitzak bere eskumen-eremuan».
67. Aztergai dugun aurreproiektuan, hain zuzen ere, egoera kontrakoa da, estatuko oinarrizko araudiak berak ezartzen baitu lege-mailako arau bat behar dela, eta, beraz, nahitaez erabili behar da lege-mailako arau bat.
68. Dena den, lehen oztopo horiek gaindituta, arauaren arrazoizkotasunean, proportzionaltasunean eta egokitasunean oinarritutako konstituzionaltasun-kanonaren arabera ere baloratu behar da aurreproiektua. Aurreproiektuan jasotzen den egitatezko kasuak justifikazio objektiboa duen baloratu beharko litzateke, eta, hala bada, legearen erabilera kontuan hartu nahi den eta onartu izana justifikatu duen salbuespenaren neurrikoa den (203/2013 KAE, 4. OJ); edo, bestela esanda, lege bereziak salbuespenezko egoera bati erantzuten dion eta bide horren erabilera arrazoizkoa eta neurrikoa den (122/2016 KAE, 4. OJ).
69. Alde horretatik, nahiz eta espedientetik ondorioztatzen den, lehen aipatu dugun bezala, integratuko den ikastetxea berezia dela, espedienteak ez du behar bezala justifikatzen –lege-mailako arau bat eman behar dela aipatzen du soilik– udal-ikastetxea lege bereziko prozedura honen bidez integratzeko dagoen beharra. Ez dugu ahaztu behar, Konstituzio Auzitegiaren doktrinaren arabera, lege berezien erabilerak «salbuespenezko kasu bereziei erantzun behar diela; hain zuzen ere, aparteko garrantzia eta konplexutasuna direla-eta, administrazioak (legezkotasun-printzipioari jarraikiz



jardutera mugatuta) dituen tresna arruntek eta arau-tresna arruntek konpondu ezin dituzten salbuespenezko kasuei» (203/2013 KAE).

70. Bai Laudio Udal BHIren kasuan, baita kasu honetan ere, udal-ikastetxeak hezkuntza-sare publiko autonomikoan integratzeko, lege berezia aukeratu da «arau-tresna arruntak» erabili beharrean. Tresna horrek, kasu honetan, HLOren hogeita hamargarren xedapen gehigarriak eskatzen duen lege orokorra izan beharko luke.
71. Espedientean ez dago jasota integratu daitezkeen udal-titulartasuneko beste ikastetxe batzuk egon daitezkeela, ezta horien ezaugarriak ere. Informazio hori garrantzitsua izango litzateke lege berezia integrazio horiek egiteko «arau-tresna arrunt» ez dela bihurtuko bermatzeko.
72. Beraz, komenigarria da espedientean lege bereziaren bidea erabiltzeko arrazoen berri ematea; izan ere, ikusi dugunez, lege berezia arauaren konstituzionaltasun-kanonaren arabera sortu da.
73. Eta arrazoi beragatik, justifikazio hori lege-aurreproiektuaren zioen azalpenari erantsi beharko litzaioke, –labur-labur bada ere–. Ezin dugu alde batera utzi Konstituzio Auzitegiaren doktrinak berak, oro har, arauen azalpen-zatiaren garrantzia nabarmentzen badu ere –«hitzaurreak kontuan hartu behar dira legeak interpretatzean» (uztailaren 6ko 222/2006 KAE, azaroaren 12ko 36/1981 KAE eta urriaren 4ko 150/1990 KAE aipatuz)–, lege bereziaren justifikazioaren azaleratze egokiak egokitasun-maila gainditzen duela eta beharrezkoak diren elementuen mailara igarotzen dela.
74. Azterketaren beste ikuspegi batetik, baloratu behar dugu, halaber, lege-aurreproiektuaren edukia nahikoa den HLOren hogeita hamargarren xedapen gehigarriaren eskakizunari erantzuteko.
75. Ildo horretatik, xedapen horrek ezartzen duena gogorarazi behar da: «Autonomia-erkidegoek, bertako Parlamentuen Lege bidez ezartzen den moduari eta prozedurari jarraikiz, beren ikastetxe publikoen sarean sartu ahal izango dituzte, toki-administrazioen titulartasuna izanik, egoera sozioekonomiko txarretan bizi diren ikasleak jasota dituzten ikastetxeak edo eskolatze-premiei erantzuteko zeregina betetzen duten ikastetxeak, betiere, toki-administrazioek sare horretan sartzeko borondatea adierazten badute eta Legean ezarritako baldintzak betetzen badituzte».
76. Erregulazio horretatik hiru gai eratortzen dira: (I) toki-administrazioen titulartasuneko ikastetxeak autonomia-erkidegoetako ikastetxeen sarean integratzea borondatezkoa da, eta, horregatik, toki-erakundeak integrazioaren



aldeko erabakia hartzea eskatzen du; (II) integrazioa egin ahal izango da toki-administrazioen titulartasuneko ikastetxe horiek lege autonomikoak berak zehaztutako baldintzak betetzen dituztenean, baldintza sozioekonomiko txarreko ikasleak artatzen dituztenean edo eskolatzepremiei erantzuteko lan aitortua egiten dutenean; eta (III) toki-administrazioen titulartasuneko ikastetxe horien integrazioa arautzen duen lege autonomikoak integrazioa egiteko modua eta prozedura finkatu behar ditu.

77. Hiru baldintza horietatik espedienteak lehena bete dela egiaztatu du; izan ere, esan dugun bezala, jasota dago Vitoria-Gasteizko Udala integrazioaren alde dagoela.
78. Esan daiteke bigarrena bete dela ere egiaztatuta dagoela, nahiz eta aurreproiektuaren testuak ez duen horri buruzko berariazko aipamenik jasotzen –gomendagarria bada ere–. Espedientean jasota daude integratuko den ikastetxeak dituen eskolatzepremia bereziak, eta hala jasotzen da memorietan. Memoria horien arabera, Vitoria-Gasteizko udal dantza-kontserbatorioa dantzako oinarrizko irakaskuntzak eta irakaskuntza profesionalak ematen dituen ikastetxe bakarra da autonomia-erkidego osoan, eta Hezkuntza Sailaren ikastetxe publikoen sarean txertatuz gero, sare horretan dantza-ikasketen ibilbide osoa garatu ahal izango da.
79. HLOn ere eskatzen den betekizunari dagokionez, hau da, integrazioa egiteko modua eta prozedura lege autonomikoak finkatu beharrari dagokionez, egia da, lege berezia izanik, ezin dela eskatu aurreproiektuak oro har ezartzea udal-titulartasuneko ikastetxeek integratzeko aukera izan dezaten bete behar dituzten baldintzak, ezta orokortasun-maila horrekin berarekin zehaztea horien integrazioa egiteko modua eta prozedura ere, baina beharrezkoa da aurreproiektuan jasotako erregulazioa osatzea eta eska daitekeen arau-garrantzia ematea, alde batera utzi gabe gerora hitzarmenean zehaztea.
80. 6/2020 Irizpenean lege-aurreproiektuetan jasotako erregelamendura bidaltzeari buruz gogorarazten genuenez, «erregelamendura bidaltzea beharrezkoa izateak ez du esan nahi, inola ere, ezer zehaztu gabe edo muga zehatzik jarri gabe egin behar denik. Lege-mailako arau batek, berez, gaiaren funtsezko muinari aurre egin behar dio, eta ezin izango du erregelamendura bidali ezer zehaztu gabe, erregelamenduak esku har baitezake, baina soilik lege-mailako araua osatzeko eta erregelamenduak ezartzen dituen irizpideei jarraituz».
81. Erregelamendura bidaltzeko beharrari buruz egindako baieztapen horiek aztergai dugun espedientera eraman daitezke erabat, eta horrela, etorkizuneko hitzarmenak Vitoria-Gasteizko Udal Dantza Kontserbatorioa nola integratu behar



den zehaztu arren, aurreproiektuaren testuak integrazio horren aurretik egon behar duten prozedura-jarraibideak zehaztu beharko lituzke.

82. Batzordearen ustez, aurreproiektuaren testuak zehaztu egin beharko lituzke, Kataluniako eta Gaztela-Mantxako autonomia-erkidegoek HLOren hogeita hamargarren xedapen gehigarria aplikatuz emandako lege-mailako arauak zehaztasun-maila ezberdinez egiten duten bezala, hitzarmena geroago sinatzeko aukera emango duten funtsezko prozedura-gaiak; gai horiek guztiak espedientean daude, baina aurreproiektura eraman beharko lirateke.
83. Aurreproiektuak prozedurazko eduki nahikoa izan behar du, eta eduki hori ezin da integrazioa nola egingo den ezartzera mugatu –hitzarmena sinatzea, alegia–. Beharrezkoa da aurreproiektuak HLOn ezarritako lege-erreserbaren irismena zein den jakitea, eta, gutxienez, integrazio-hitzarmena sinatzeko bete beharko diren prozedura-mugarriak eta hitzarmenaren gutxieneko edukia identifikatzea.
84. Zeregin horretan, egokia dirudi ekimena lege berezia dela kontuan hartzea, eta horrek berekin dakarrela testu artikulatuaren formulazioa kasu zehatz batera egokitzea, eta, aldi berean, prozedura-bideari behar besteko malgutasuna ematea, gehiegizko zehaztasunak ikastetxearen integrazio-prozesua ondo amaitzea oztopa ez dezan –Lege bereziaren figura erabiltzea justifikatzen baitu helburu horrek–.
85. Horretarako, proposamena egin duen organoa ezin izango da ordezkatu prozedura-itera aukeratzeko orduan, baina badirudi administrazio bakoitzak integrazio-espedientean sartu beharko dituen agiriak eta txostenak agertu beharko direla gutxienez, edozein integratiok –langileak, ondare-eragiketak, aurrekontu-kredituen araubidea, kontratuak eta beste betebeharrak, etab.– planteatzen dituen funtsezko gaiak ebazteko, eta horiek nahitaez sartu beharko dira hitzarmenaren espedientean.
86. Bestalde, ikastetxeko langileen egoerari dagokionez, jakin behar da haien funtzionarioak integratzeko har daitezkeen zenbait erabakik lege-mailako araua eska dezaketela. Hori dela-eta, Hezkuntza Sailak gogoeta egin beharko du ikastetxean irakaskuntza-zerbitzua eta irakaskuntzakoa ez den zerbitzua behar bezala ematen direla bermatzeko dituen aukerei buruz, eta, horren arabera, beharrezkoa izanez gero, aurreproiektuan behar bezala arautu beharko ditu.
87. Ildo horretan, eta testu arauemailearen azken edukiari buruzko azken gogoeta gisa, testu horren idazketak –langileei buruzko alderdiei dagokienez– kontuan



izan behar du abenduaren 28ko 20/2021 Legetik eratorritako enplegu publikoa egonkortzeko prozesuei dagokienez gaur egun bizi dugun egoera berezia.

88. Ez da ahaztu behar espedientean jasota dagoela ikastetxeko irakasle guztien lan-harremana eta administrazioko eta mendeko langileen bitarteko funtzionario izendapenak aldi baterakoak direla. Hala ere, 2022ko maiatzaren 27ko Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean (ALHAO), 61. zenbakian, enplegu publikoa egonkortzeko eskaintzaren onespena eta José Uruñuela Udal Dantza Kontserbatorioaren 2022. urterako enplegu publikoaren eskaintza argitaratu dira. Azken eskaintza horretan, funtzionariotzat hartzen dira administrazioko eta mendeko langileak, baina baita dantza klasikoko irakasle bat ere.

ONDORIOA

Batzordearen irizpena da, txosten honen mamian egindako oharrak kontuan hartu ostean, lege-aurreproiektua Gobernu Kontseiluari helaraz dakiokela onespena eman diezaion.

Eta hala ziurtatzen dut, Vitoria-Gasteizen, 2022ko uztailaren 14an, batzordeburuaren oniritziarekin, jakin eta kontuan har dadin. Era berean, azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 30.2 artikulua xedatzen duen betebeharra gogorarazten dizugu: Batzorde honi jakinarazi behar zaio azkenean onartutako xedapena edo ebazpena, antolamendu eta funtzionamenduaren araudia onartzen duen irailaren 12ko 167/2006 Dekretuaren 34. artikulua xedatzen duen moduan eta epean.

Jesús María Alonso Quilchano,

Idazkaria

Ontzat emana:

Sabino Torre Díez,

Batzordeburua

Elektronikoki sinatua